



Txosten exekutiboa:

EUSKADIKO ESKOLA-HEZKUNTZA 2015/2017

Iritziak eta proposamenak





Txostena 2018/06/28ko Osoko Bilkuran onartu zen eta behean aipatutako kideak joan ziren:

Nélida Zaiti de Miguel
(lehendakaria)

Maritere Ojanguren Villalabeitia (lehendakariordea)

Patxi Xabier Aizpurua Telleria (Batzorde Iraunkorra)

Danel Bringas Egileor

Josean Bueno Sáez de Albéniz
(Batzorde Iraunkorra)

Koldo Castrillo Tejedor

Agustín Eizaguirre Agote

Xabier Etxaniz Erle

Pablo García de Vicuña Peñafiel

Amaia Jauregiberri Goenaga

Juan Carlos Jauregui Beraza
(Batzorde Iraunkorra)

Maria Luisa Jaussi Nieva

Carmelo Martínez López

Mikel Pagola Tolosa
(Batzorde Iraunkorra)

Begoña Pedrosa Lobato

Ana Isabel Puente Martínez

Ibai Redondo Beitia

Axier San Miguel Arenaza

Usoa Urbietta Egaña
(Batzorde Iraunkorra)

Carlos Pereda Martínez de Musitu

Ainhoa Rotaetxe Etxebarria



Eva Blanco Ochoa
(Idazkari Teknikoa)



CEE/EEKren txosten osoa, 2015/16 eta 2016/17 ikasturteei dagokiena, hemen adierazitako datuak azaltzen dituen Euskadiko Eskola Kontseiluaren webgunean aurki daiteke.

Lauetako bakoitzean azaltzen dira datu esanguratsuenak, grafiko iruzkinduetan, eta jarraian datozen iritziak eta proposamenak justifikatzen dituzte.

Txosten honetako datuen iturria Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila da. Beste jatorririk badute datuek, berariaz adierazi da nondik hartu den datua.





Txostenaren egitura



1. Kapituluak. Hezkuntzaren bilakaera eta egungo egoera Euskadin.

- Jaiotza-tasa.
- Euskalduntzea.
- Eskolatzera sarearen arabera.
- LH duala.
- Atzerriko ikasleak.
- HPB ikasleak.



Proposamenak



2. Kapituluak. Hezkuntza sistemaren finantzaketa eta baliabide ekonomikoak.

- Alderaketak.
- Inbertsio-maila (dirua).
- Irakasleak.
- Eskola sareak.
- Eztabaida.



Proposamenak



3. Kapituluak. Hobetzeko prozesuak.

- Zuzendaritza egonkor, trebe eta konprometituak.
- Eskola emaitzak hobetzea.
- Irakaskuntza eleanitza.
- Irakasleen gaitasun digitala.
- Ikastetxeen ebaluazioa.



Proposamenak



4. Kapituluak. Ikaskuntzaren emaitzak.

- Eskola-emaitzak:
- Ekitatea sisteman.



* Eskola-kalifikazioa, 2016-17.
* Ebaluazio diagnostikoa 2017.
* PISA, 2015.



Proposamenak

Euskadiko Eskola Kontseilua (EEK)



euskadiko eskola
kontseilua consejo
escolar de euskadi



Hezkuntza-komunitatearen
ordezkapena

Ospe handiko pertsonak.		
Irakasleak (publikoa + itunpekoa).		Toki administrazioa.
Gurasoak.	Sindikatuak.	Hezkuntza administrazioa.
Ugazaben elkarteak.	AZL.	Pribatuko titularrak.
UPV/ EHU	Ikasleak.	Pedag. taldea.
Doktes. & Liztuak elkar.	EGK/CJE	Idazkari teknikoak.



OSAKETA

Kontseilari zbk.:

46+1

FUNTZIOAK: Gomendioak eta asesoramendua.




1. HEZKUNTZAREN BILAKAERA ETA EGUNGO EGOERA EUSKADIN

Kapitulu honetan Euskadiko eskola-hezkuntzaren azken hamarkadako bilakaera aurkezten da, eta atal berezia eskaini zaie 2015-16 eta 2016-17 ikasturteei. Lehenengo atalean, ikasle bakoitzak etapa bakoitzean izan duen bilakaerari buruzko datu esanguratsuenak biltzen dira, bi eskola-sareetan eta gure sistemako hiru hizkuntza-ereduetan.

Halaber, hezkuntza-laguntza behar duten ikasleen eta atzerriko ikasleen bilakaera ere zehaztu da. Bigarren atalean, hainbat datu eskaintzen dira: adierazle ekonomikoak eta eskolatze eta eskola uzteari buruzkoak, ratioak eta euskalduntzea. Horiei esker, Euskadiko eskola-hezkuntzaren egungo egoera aztertu, iritziak eman eta hobetzeko proposamenak aurkez ditzakegu.

JAIOITZA-TASA



Jaiotza-tasak % 6,5 egin zuen behera Euskadin 2017an, 1.185 haur gutxiago, beraz. EUSTATen arabera, 2025era arte jaiotza-tasak behera egitea aurreikusi da, 15.000 arte.

Haur Hezkuntzan matrikula kopurua jaitsi da eta 2018-19 ikasturtean antzemango da Lehen Hezkuntzako lehenengo mailetan. Aldi batez, ikasle kopurua hazi egingo da Lehen Hezkuntzako, DBHko eta derrigorrezko mailen ondorengo ikasketetako azken mailetan.

Jaiotza-tasaren bilakaera Euskadin, lurraldearen arabera, 2008tik 2016ra

	2008	2016	Azken 8 urteak
Araba	3.209	3.074	-4,2%
Bizkaia	10.861	9.151	-15,7%
Gipuzkoa	7.245	6.015	-17,0%
Euskal Auton. Erk.	21.318	18.240	-14,4%


EUSKALDUNTZEA

NIK 
EUSKARA

... prozesu geldiezin.

Gaitasun eleaniztunak eskola-ondarea behar du izan eta ikasle guztientzako hedagarria.

D ereduak hazten jarraitzen du. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHn hazi da. Behera egin dute, beraz, A eta B ereduak matrikulazioek. Joera hori ez da hain argia Batxilergoan eta LHn, A ereduak hazi baita horietan.





ESKOLATZEA SAREAREN ARABERA



Ikastetxe publiko eta itunpekoek modu berean hartu behar dituzte bere gain ikastetxea kokatuta dagoen eremuko eskola-herritarrek dituzten hezkuntza-beharrizan guztiak.

Ikasleak erdi eta erdi banatzen dira, gutxi gorabehera, sare publiko eta sare pribatuaren artean, eta goranzko edo beheranzko oszilazio txikiak daude, etaparen arabera. Hala ere, atzerriko ikasleen eta neae duten ikasleen eskolatzeak bere joera bat dauka. Oinarrizko LH, aldiz, sare pribatuak jasotzen du, orokorrean.

	Publikoa	Pribatua
Haur Hezkuntza	52%	48%
Lehen Hezkuntza	51,8%	48,2%
DBH	46,4%	53,6%
Batxilergoa	49,5%	50,5%
LH, erdi-mailakoa	62,9%	37,1%
Oinarrizko LH	28,6%	71,6%
n.e.a.e ikasleak	59,7%	40,3%
Atzerriko ikasleak	68%	32%


LH DUALA



Prestakuntza-zentroak eta enpresak elkarrekin egindako ikaskuntza-prozesua

2012-23 ikasturtetik aurrera, goi-mailako LH egin daiteke LH dual ereduari. Bost urte hauetan, LH dualeko ikasle kopurua 10,3 aldiz biderkatu da, enpresa kopurua 8,3 aldiz eta LH zentroak 3 aldiz. 2016-17 ikasturtean eredu horretan parte hartu du 2, mailako ikasleen % 12k.

LH dualaren, ikasleen, zentroen eta enpresen bilakaera, 2012tik 2017ra



ATZERRIKO IKASLEAK



... aniztasuna eta aberastasuna.


Atzerriko ikasleen etorrerarekin, hainbat kultura, bizimodu eta jokabide-arau ezberdinekin, ikastetxeen heterogeneotasunak gora egin du.

Lehenengo mailetan, atzerriko ikasleak eredu ezberdinetan ikasle kopuru osoaren proportzio berean eskolatzen dira. Hala ere, DBHtik aurrera, portzentajeak gora egiten du A ereduari, eta diferentzia hori hazi egiten da Batxilergoan eta Lanbide Heziketan. Oinarrizko LHk atzerriko ikasleen % 26,9 du, eta hezkuntza-sistema osoan batez bestekoa % 7,2 da.

Atzerriko ikasleak, etapa eta sarearen arabera 2016-17 ikasturtea

	Pub.	Prib.	Guztira
H. H	5.434	1.451	6.885
L.H	6.669	2.342	9.011
DBH	2.994	2.424	5.418
Batx.	938	521	1.459
LH EM	975	469	1.444
LH GM	732	419	1.151
OLH	332	856	1.188
Guztira	18.074	8.482	26.556
Sare%	9,6%	4,7%	7,2%


Distribución del alumnado extranjero por origen



**HPB IKASLEAK**

“Ikasleak onartzean diskriminaziorik gabeko eskolatzeari izatea, harrera, transitoa eta aniztasun funtzionalari arreta optimizatuta”
HOBETZEKO PLANA 2016 (EAE).

Eskola Inklusiboak hezkuntza-laguntza eman behar die desgaitasun edota jokabidearen nahasmendu larriengatik hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituztenei eta ezaugarri edo historia pertsonalarengatik berariazko hezkuntza-premia bereziak (BHPB) dituztenei. Azken bi urteetan % 17,9 igo da, beharrianak lehenago diagnostikatzen direlako, eta hezkuntza-laguntza handitu eta denbora luzeagoan ematen zaie arreta.

HPB dituzten ikasleen bilakaera**IRITZIAK:**

Euskadiko eskola-hezkuntzak berezko ezaugarriak ditu eta beharrezkoa da horiek berrikustea ikasleen eskakizun eta beharrian berriei erantzun eta horiek ezagutza eta ikaskuntzaren gizartean bizi eta modu arrakastatsuan garatzeko.

Ikaskuntzaren berdintasun eta askatasunaren eztabaidari beste elementu bat gehitu zaio: ikaskuntzaren kalitatea. Kalitatezko ikaskuntzaren parametroak ezartzea da kontua, eta horiek emaitza akademikoan edota irizpide sozialen arabera neur daitezke. Bi irizpide horiek garrantzitsuak dira eta bere kabuz ez dira nahikoak. Biak eduki behar dira kontuan, eta ikastetxe bakoitzak egoera ezberdina duela abiapuntu, baita guztiak daudela gizarte-proiektu komun baten zerbitzura, eta bertan garrantzitsuak dira emaitza akademiko onak zein berdintasuna eta norbanakoen askatasuna, kohesioa eta gizarteratzea.

Ikaskuntzaren euskalduntzeak aurrera darrai. Ia herritar guztiak hasten dira euskara ikasten eta erabiltzen Haur Hezkuntzan. Pixkanaka, ikastetxe pribatueta B ereduak D eredura igarotzen doaz oinarritzko hezkuntzan eta, derrigorrezko mailen ondorengo mailetan, A ereduak euskararen erabileran aurrera egiteko aukera ematen du, LHn bereziki, bertan baitzuen euskarak presentzia txikiagoa.


Desgaitasun edo nahasmenduren bat duen ikaslearen hezkuntza-premia berezietan arreta jartzen jarraitzen da, baita ikaslearen garapen, ikaskuntza eta jokabideari eragiten dioten hezkuntza-laguntzarako beharrianetan ere. Atzerriko ikasleen beharrianak ere jorratzen dira, jatorrizko lekutik deserrotu direlako, eta ezagutzen ez duten hizkuntza-, kultura-, eskola- eta gizarte-testuinguruan txertatzeko zailtasunak dituztelako.

Sexu-berdintasunean oinarritutako hezkuntzak eskolatzere-eredu inklusiboa behar du. Ikaskuntza mistoaz gain, benetan hezkidea izateko, espazioen okupazioa, atazen erantzukizuna eta elkarbizitza jorratu behar dira. Une garrantzitsu bat Batxilergoko modalitateak eta LHko familiak hautatzea izan ohi da. Datuek adierazten dutenez, hautaketa horretan indar handia dute sexu bakoitzari eman izan zaizkien funtzioek. Eskolatzearen beste disfuntzio batek mutilei eragiten die: maila errepikatzen duen ikasle kopurua, oinarritzko LH amaitzen dute, ohiko eskolatzearan porrot egin ostean, eta ikasketak uzten dituzte, oso goiz, neskek egin ohi dutena baino askoz lehenago. Ikastetxean eskaintzen zaienaren inguruko interesik ez duten ikasleak hazten dira, beste era batera esanda, ikastetxeak ez du haien interes, gaitasun eta itxaropenekin bat egiten.

Azkenik, ezinbestekoa da kontuan hartzea hezkuntza artistikoa funtsezkoa dela pertsonen prestakuntzan eta kultura-aurrerapenean, sormenaren garapenean eta gaitasun berritzailean.



1 Hezkuntzaren bilakaera eta egungo egoera Euskadin.



Jaiotza-tasa	Euskalduntzea	Eskolatzea sarearen arabera
LH duala	Atzerriko ikasleak	HPB ikasleak



PROPOSAMENAK

Euskalduntzearen hobekuntza.

- A eredu A eredu indartuarekin edo B ereduarekin ordezkatzea pixkanaka, arlo edo ta jardura kurrikular batzuk euskaraz izanik.
- Familia-testuinguruan eta testuinguru sozialean euskara ikasteko eta erabiltzeko aukerarik ez duten ikasleak eskolatzen dituzten ikastetxeak, edo zein motako baliabideekin, sustatzea (ekonomiko eta pertsonalaren baliabideak, beste batzuen artean).

Eskolatze inklusiboa bermatzea.

- Eskola inklusibo eta heterogeneoa balioan jartzea, gizarte-kohesioa eta arrakasta kolektiboa sortzeko.
- Ikastetxeetan modu bereizian arreta ematea, proiektuen arabera erantzun optimoak emateko, atzerriko ikasleak edo bestelako beharrianak dituzten ikasleen kasuan.
- Diru publikoa jasotzen duten ikasteetan eikasleen eskolatzen orekatua ahalbidetzeko neurriak hartzea.

Berdintasunean oinarritutako eskolatzea.

- Zientzia eta teknologiako modalitate akademikoetan eta profesionletan neska diren ikasleen presentzia sustatzeko beharrezko bitartekoak jartzea.
- Behar bezalako estrategiak ezartzea, ikasteko zailtasunak eta interes falta duen mutilen kasuan, eskola-arrakasta areagotzeko.

Irakaskuntza artistikoen sustapena.

- Lehen Hezkuntzan eta DOBHn irakaskuntza artistikoen egoera aztertzea.
- Jardura artistikoen irakaskuntzaren eskaintza hiru lurraldeetan orekatzea, eskaera hobetzeko.
- Ohiko ikastetxeetan arte plastikoaren, antzerkiaren eta dantzaren arautu gabeko irakaskuntzak bultzatzea.


“Ekitatea eta bikaintasuna osagarriak dira eta hori da hezkuntza-sistema baten kalitatearen oinarri den binomioa”.



2.: HEZKUNTZA SISTEMAREN FINANTZAKETA ETA BALIABIDEAK EKONOMIKOAK

Kapitulu honetan, testuinguru sozioekonomikoari buruzko datuak aurkeztuko dira, baita Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntzaren arloko ekonomia-adierazle nagusiei buruzko datuak eta azken bi ikasturte hauetako Hezkuntza Sailaren aurrekontuari buruzko datuak ere. Eskola publikoko irakasleen plantillak aztertuko dira eta irakaskuntza publikoaren eta itunpeko pribatuaren finantzaketa alderatuko dira.

1.- ALDERAKETAK



Bidezkoak izan behar dira eta ez gaituzte autokonplazentzirantz ezta adore ezarantz eramane behar.

Hezkuntzaren adierazle ekonomikoen arabera, Euskadi egoera onean dago, Espainiarekin eta gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuta, eta hezkuntzan egindako inbertsioa EB22 herrialdeek egiten duten inbertsioaren mailan dago.

	Euskal Auton. Erk.	Espainia	EB22
Gastu publikoa, BPGaren ehuneko gisa (1)	4.1%	3.5%	4,4%
Gastu publikoa, gastu publiko osoaren ehuneko gisa (2)	9,8%	8,2%	9,9%
Ikasle bakoitzeko gastua (3)	9.862	7.772	9.721


(1) (2) (3) Education at a Glance (OECD, 2017), B4.1 taula eta EUSTATen Hezkuntzaren kontua (2014) Irakaskuntza guztiak.

2.- DIRUA



Gizarteak ahalegin kolektiboa egiten du behar bezalako zerbitzu publikoak izateko.

Euskal Autonomia Erkidegoa hezkuntzan egindako inbertsio-maila berreskuratzen ari da, krisi ekonomikoan zehar behera egin ostean.



3.- PERTSONAK




... dira guztiaren ardatz. Irakasleak irizpideen arabera hautatzea, horiek hazi, balioetsi eta behar bezala ordaintzea hezkuntza sistema on baten baldintzak dira.

- Hezkuntza sistemaren kalitatea, hein handi batean, irakasleen kalitatearen arabera da.
- Langileen gastuak aurrekontuaren guztizkoaren % 80a gainditzen du.
- Irakasleen plantillak egonkorak dira Lehen Hezkuntzan eta neurrian hazi dira Bigarren Hezkuntzan, eskolatutako ikasle kopuruaren bilakaeraren arabera.
- Sare publikoko bitarteko irakasleen portzentajea plantillaren % 25 baino handiagoa da.
- Sare publikoko irakasle funtzionarioen eta langileen batez besteko adina 50 urtetik gorakoa da, eta bitartekoena 40 eta 50 urte bitartekoa.
- Lehen Hezkuntzan ikasle kopurua nabarmen murriztea aurreikusten da.
- Plantillaren % 50 datorren hamarkadan berrituko da. Plantilla berritze hori erronka eta, aldi berean, aukera da.



4.- ESKOLA SAREAK




... lankidetzan aritzea, lehian aritu ordez.

Ikasleen beharrianak eta sistema osoarenak elkarrekin eta modu orekatuan gure gain hartzea. Aliantzak eta konpromisoak hartzea, udalerri batek edo barruti zehatz batek dituen arazoei irtenbidea emateko.

Sare publikoa eta sare pribatua euskal hezkuntza sistemaren aktibo garrantzitsuak dira. Bi sareen arteko ikasle eta unitate bakoitzeko gastu- ezberdintasunaren % 80a baino gehiago sare bakoitzaren irakaskuntzan aritzen den langileen guztizkoaren konpentsazioa da. Honako faktore hauek eragiten dute:

1. Sare publikoko irakasleek soldata-kompentsazioa pribatukoarena baino zertxobait altuagoa da, hainbat arrazoi direla medio.
2. Ikasle/irakasle ratioak eta ikasgela bakoitzeko ikasle kopurua baxuagoak dira sare publikoan.
3. Irakasleen eskola-zama eta ikasle bakoitzaren heziketa-denbora.
4. Unitateko kostu handiagoa duten etapetan sareak presentzia handiagoa ala txikiagoa izatea, adibidez, Batxilergoan edo Lanbide Heziketan.



Eustat. Hezkuntzaren kontua, 2015 eta 2017

5.- EZTABAIDA



... datuei esanahia ematean.

Hezkuntza-gastuaren opakotasunak, adierazle batzuen ahultasunak eta horiek aurkeztea luzatzeak zaildu egiten dute datuei esanahi bera eman ahal izatea. Datuak beti ikuspegi ideologiko ezberdinen arabera aztertuko dira.

Finantzaketa, gizarte-eztabaida

Hezkuntza-sistemen finantzaketak beti piztu ditu eztabaida handiak. Ikasle bakoitzeko gastua eta horretara bideratutako BPGren portzentajea dira gastu-adierazle garrantzitsuak eta, batzuetan, ebidentzia kontraesankorrak eman eta herritarrentzako kezka bihurtzen dira. Hori dela eta, gomendagarria da hezkuntzaren adierazle ekonomikoek horretara bideratutako baliabideen balorazio zehatzagoa eskaintzea.

Hezkuntzan egindako gastua edo, hobeto esanda, hezkuntza-inbertsioa jorratzen denean, hausnarketarako dimentsio garrantzitsuak proposatzen dira:

- Gastua ezarritako zilezko helburuetara egokitzea eta derrigorrezko irakaskuntza doakoa izateko konpromisoa.
- Finantzatzeko gaitasuna, zerga- eta bilketa-politiken bitartez.
- Aurreikusitako emaitzak lortzeko sistemaren eraginkortasuna eta eraginkortasun bera horiek ahalik eta gastu txikienarekin lortzeko.
- Herritarren eta familien beharrianen arabera banaketa bidezkoa.
- Irakasleak zorrotz hautatzea, beren jardun profesionala behar bezala egitea eta hori modu bidezkoan ordaintzea.
- Sistemaren artikulazioa (adinak, mailak, etapak...) modu arin eta arrazionalen egitea.
- Hezkuntza-beharrianen finantzaketan lehentasunak eta gastu publikoaren eta pribatuaren arteko oreka.

Erabakiak hartzean arrakastazko arau positibo ba da arazoi bidezko eta boteretsuak erabiltzea, ebidentzietan oinarritutakoak, pertsona guztien hezkuntza-eskubideak bermatzeko.



IRITZIAK

Hezkuntzaren hobekuntzan eragina duten faktoreen artean inbertsioa da horietako bat;. Horregatik beste hobekuntza-prozesu batzuk behar dira ikastetxeetan.

Ikastetxeen finantzaketa hobetzen bada, maila eta emaitzen banaketa hobetzea izango du ondorio. Dirua ez da irtenbide bakarra, eta langile- eta finantza-baliabideak egokiago eta modu bidezkoagoan esleituta beharrezko baldintzak sortzen dira ekitatean zein emaitzen bikaintasunean hobetzeko. Eskura dugun ebidentziak proposatzen duenez, behar bezalako finantzaketak eta horren erabileran erantzukizun handiagoa hartzeak gidatzen dute bidea.

Laburbilduz, Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntzak hiru erronkari egin behar dio aurre: oinarrizko gaitasunetan ikaskuntzaren emaitzak hobetzea, gazteak bizitza heldurako hobeto prestatzea, eta hori pertsona guztientzat modu bidezkoan egitea. Hiru erronka horiek batera jorratzeko modu bakarra da egokitzeko gaitasun handiagoa duen hezkuntza-sistema lortzea. Beharrian berrietara egokitzen den sistemak arina behar du izan, eta erabakiak hartzeko tokiko gaitasun zabala, orientazio adimenduna eta baliabideak goitik modu estrategikoan esleitzea uztartu behar ditu.



2 Hezkuntza sistemaren finantzaketa eta baliabide ekonomikoak.



- ➡ Testuinguru sozioekonomikoari buruzko datuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntzaren arloko ekonomia-adierazle nagusiak.
- ➡ Azken bi ikasturte hauetako Hezkuntza Sailaren aurrekontuari buruzko datuak.
- ➡ Eskola publikoko irakasleen plantillen azterketa.
- ➡ Irakaskuntza publikoaren eta itunpeko pribatuaren finantzaketan arteko alderaketa.
- ➡ Finantzaketa, gizarte-eztabaida.

PROPOSAMENAK:



Baliabideak esleitzeko eredu esplizitua, gardena eta ekitatiboa..



Erabakiak hartzeko ebidentziak jarriko dituzten ekonomia-adierazle fidagarriak.



Ikasleen premia pertsonaletara eta ikaskuntza-premietara eta ikastetxeen eraginkortasun frogatura egokitzaen den finantzaketa.



Eraginkortasunik gabeko neurriak saihestuko dituen finantzaketa, eraginkortasun egiaztatua duten prozesuei eta egoturei legihentasuna emango diena.

● Finantzaketa-eredu adostua eta egonkor samarra ezartzea, ikastetxe bakoitzari baliabideak esleitzeko zentzuzko oinarri gisa, betiere ikastetxe bakoitzeko ikasleen premien eta horiekiko erantzun egokiaren arabera.

● Ikastetxeek konpromisoa hartzea haien esku jarritako baliabideen erabilera eraginkorra eta efizientea egiteko, eta, hartara, eskolak finantzatzeko moduaren gaineko jendearen ulermena eta konfiantza indartzeko.

● Hezkuntza-gastuaren bilakaera behatzeko eta beste herrialde eta erkidego batzuekin zentzuzko eta arrazoizko konparazioak egiteko aukera emango duten adierazle ekonomikoak eskura izatea, adierazle horiek kalkulatzeko metodologiak zehaztuz eta adostuz. Ikastetxez ikastetxeko datu ekonomikoak edukitzea.

● Hezkuntzaren ekonomiaren ikerketa sustatzea, behar besteko ebidentziarik ez duten edo ebidentzia kontraesankorrak dituzten alderdiak eta neurriak jorratuz.

● Irakasleen eta herritarren artean gastuen datuei buruzko pedagogia egitea. Informazio hobeak iritzi hobe ahalbidetzen du eta, era berean, hezkuntza-gastua inbertsio publiko gisa ulertzeko onarpen handiagoa ahalbidetzen du, baita herritarrek ordaintzen dituzten zergen zati baten helburu zuzen gisa ulertzeko onarpen handiagoa ere.

● Ikastetxeen indize sozioekonomikoa eta kulturala, edo antzeko beste adierazle bat, oinarritzko elementutzat jotzea ikastetxeen finantzaketa bereizteko, behar besteko laguntzak berma daitezen premia berezi handiagoak dituzten ikasle-kolektibo horiei arreta pertsonalizatuago emateko.

● Transformazio-proiektu espezifikoak bultzatzea oso bereizketa handiko eskola-populazioa duten ikastetxeetan eta/edo errendimendu-probetan balio erantsi urria duten ikastetxeetan.

● Irakasleen aukeraketa zorrotza egitea, kalitateko jokabide profesionala ez ezik, jardun profesionalaren etengabeko garapena ere aurreratu duten irizpideekin. Neurri horrek, berez, sistemaren eraginkortasuna eta efizientzia areagotzen du.

● Zuzendaritzako eta lidergoko egitekoak beren gain hartuko dituzten eskola-zuzendaritzako kideen masa kritikoa osatzea eta, horretarako, zuzendaritza-funtzioaren hautespeneko, prestakuntzako eta ebaluazioko prozesuak hobetzea.

● Inpaktu handiko eta efizientzia frogatuko esku-hartzeak sustatzea.

“Inbertsio estrategikoak egitea, erronken arabera eta erantzukidetasunean eta gardentasunean oinarrituta”.



3. HOBETZEKO PROZESUAK

Bikaintasuna eta ekitatea lortzea da EAEko hezkuntza-sistemaren helburua. Horretan aurrera egiteko, ohiko joera da lortu nahi diren emaitzak lortzeko baliabideak optimizatzen dituzten prozesuetan arreta jarri beharrean, baliabideetan eta emaitzetan soilik jartzea. Prozesuak bikainak direnean soilik lortu ahal izango da emaitzen bikaintasuna. Hori da EAEko hezkuntza-sistemaren erronka.

Beharrezkoa da gaitasunen araberako ikaskuntza-eredu bat ezartzea ikastetxe eta ikasgela guztietan, emaitzak hobetu ahal izateko. EAEko Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planak, 2016ko martxoan onartutakoak, jarraitu beharreko ildo estrategikoak definitzen ditu, XXI. mendeko gizartearen eskakizun berriei erantzunez hezkuntza-prozesuak eta ikasleen hezkuntza-beharrizanei behar bezalako arreta doitzeko.

ZUZENDARITZA EGONKOR, TREBE ETA KONPROMETITUAK




Zuzendaritza-taldeak erakarri, lagundu eta mantentzeko gaitasuna Hezkuntza Administrazioaren erronka garrantzitsuetako bat izan behar da.

L1.3. Helburua. Zuzendaritza-taldearen eraketa

EAEko zuzendaritza-taldearen eraketa eta ebaluazioa bultzatu badira ere, ez da lortu Hezkuntza Publikoko ikastetxe guztiek izatea hautaketa-prozesuen ondoriozko zuzendaritzak. Hautagai ezak balioa kentzen dio hautaketa-prozesuari eta Hezkuntza Administrazioak derrigorrezko zuzendaritzak izendatu behar ditu eta, beraz, prekarioak izan ohi dira.

Ebaluatutako zuzendaritza ehunekoak



ESKOLA EMAITZAK HOBETZEA




Baliabideak arazoak dauden lekuan kokatzea eta horiek eraginkorrak diren ala ez etengabe egiaztatzea.

L2.1. Helburua. Eskolatzeko irekia eta aniztasuna kontuan hartzea.

HAMAIIKA ESKU hezkuntza esku hartzeko programarekin, eta horren baitan helburua da, 3 urte igarotakoan, proba diagnostikoen gaitasunen hasierako mailako (maila baxueneko) ikasle portzentajea murriztea, maila horretan ikasle portzentaje altua duten ikastetxeetan. Ikastetxeei emandako baliabideak garrantzitsuak dira eta balantzea positiboa da, Hezkuntza Ikuskaritzaren arabera.

HAMAIIKA ESKU programaren lorpen-maila (2016-17)





IRAKASKUNTZA ELEANITZA


**bai, yes,
sí, oui, ja,
如果**

Eleaniztasuna eta hizkuntza-aniztasuna beste hizkuntza eta kulturak onartzearen eta horiekiko jakin-mina erakustearen araberakoak dira.

L3.3. Helburua. Irakaskuntza eleanitza ezartzea

Proiektu eleanitzak gehiago ezarri eta hedatzen dira ikastetxe pribatuetan (% 72,8) ikastetxe publikoetan baino (% 26,8). Sare publikoko irakasleen mugikortasunak, batzuetan, proiektuek aurrera egitea zailtzen du.

Proiektu eleanitzak. 2016-17 ikasturtea



IRAKASLEEN GAITASUN DIGITALA




Baliabideek soilik ez dute ezer aldatzen. Tresnak baino ez dira, lortu nahi diren helburuak erdiesteko.

L4.2. Helburua. Ikastetxeen eraldaketa teknologikoa.

Irakasleek gero eta maila altuagoa dute gaitasun digitalean. Hezkuntza Sailaren inkesta baten arabera, 2016-17 ikasturtean, ia ez zegoen irakaslerik bitarteko teknologikoetan “ez erabiltzaile” maila zuenik. Irakasle gehienek gaintitzen zuten maila hori eta % 10 inguruk aditu maila lortu zuen.

Irakasleen gaitasun digitalaren maila. 2016-17



IKASTETXEEN EBALUAZIOA



Barne-ebaluazioak eta kanpoko ebaluazioak lorpenen errealtatearen ikuspegi osagarriak eskaintzen dituzte.

L5.2. Helburua. Ikastetxeen parte-hartzea ebaluazio diagnostikoan

Ikastetxeek Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBH 2. mailako ikasleen ebaluazioa egin dute, modu autonomoan eta ISEI-IVEIK eskaintako irizpide eta tresnen arabera. Ikuskaritzak 2016-17 ikasturtean zehar 229 ikastetxeren barne-emaizten eta kanpoko ebaluazioen ondoriozko hobetzeko helburuen azterketa, balorazioa eta jarraipena egin zuen, eta honako hauek dira ondorioak:

- ✓ Hezkuntza-komunitateak parte-hartze altua izan zuen autoebaluazioan ikastetxeen % 84an, eta ondorioek hobetzeko proposamen koherente, egingarri eta eraginkorrak eskaini dituzte.
- ✓ Ikastetxearen indargune eta ahulguneak aintzat hartu dira eta ikastetxeen % 74tan lortutako emaitzekin bat datoz.
- ✓ 162 ikastetxeetan (% 70) datu esanguratsuenak aztertuta, emaitzak praktika zehatzekin lotuta daudela ondorioztatu da.
- ✓ Ikastetxeen % 62k ikastetxe/ikasgelako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren alderdi edo alor zehatzak aztertu ditu: plangintza eta programazioa (% 62), curriculum-garapena (% 60), metodologia (% 70), ebaluazioa eta ahalegina (% 48).
- ✓ Aurre egindako jarduerak ikasleen emaitzak hobetzen lagundu dute ikastetxeen % 57tan. Adibidez: Jardunbide egokia, Partekatuz ikasi, Sare Hezkuntza...



IRITZIAK

EAEko Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planak (2016tik 2020ra) proposatzen dituen jarduera-ildo estrategikoak garrantzitsuak eta beharrezkoak dira sistema optimizatzeko eta emaitza hobeak lortzeko.

Planak hezkuntza-prozesuen optimizazioari erreferentzia egiten dioten beharrei eman nahi die erantzuna. Beharrezko baliabideak izateaz gain, garrantzitsua da horien kudeaketa eraginkorra ere; hau da, prozesu didaktikoak hobetzea, metodologia, harremanak, denboren kudeaketa, ikasleen arreta pertsonalizatua, irakasleen ebaluazioa, prestakuntza, konpromisoa eta taldelana, zuzendaritzaren lidergo pedagogikoa eta banatua, familien partaidetza eta abar.

Hobekuntza Planak proposatzen dituen ildo estrategikoek arlo hauek biltzen ditu:

- Prozesuak garatzeko gai diren eragileak: ikastetxeak, hezkuntza-ekintzaren arduradunak (6. ildo estrategikoa) eta irakasleak, zuzeneko eragileak, hezkuntza-komunitate osoarekin batera (1. ildo estrategikoa).
- Prozesuen helburu argiak; ikasleek informazioaren, ezagutzaren eta komunikazioaren gizartean autonomiarekin, arrazionaltasunarekin eta eraginkortasunarekin jarduteko (1. ildo estrategikoa) konpetentziak lor ditzaten lagunduko dutenak; gizarte globalizatuan, heterogeneoan eta kultura anitzean elkarbizitzen ikasiko duenak, norbere jatorriak oinarri hartuta (2. eta 3. ildo estrategikoak); aro digitalak eskaintzen dituen baliabide berriak ezagutu eta aprobetxatuko dituztenak (4. ildo estrategikoa).
- Prozesuak bideratuko dituzten tresnak: ebaluazioa eta ikerketa (5. ildo estrategikoa).

Eskola Kontseiluaren ustez, EAEko Hezkuntza Sistemaren Hobekuntza Planak ildo estrategiko bakoitzean oinarritu behar du, indarraldian lehentasunezkoztat eta posibleztat jotzen dituen helburuetan eta horiek lortzeko beharrezko baldintzetan.




3

Hobetzeko prozesuak.



Zuzendaritza egonkor, trebe eta konprometitua.	Eskola emaitzak hobetzea.	Irakaskuntza eleanitza.	Irakasleen gaitasun digitala.	Ikastetxeen ebaluazioa.
PROPOSAMENAK:  EAEko hezkuntza-sistema hobetzeko lehentasunezko helburuak.	- Euskararen ikaskuntza-prozesuak hobetzea, bereziki ohiko erabilerarekin lotutakoak; gainera, lotura afektiboa hizkuntzarekin eta prestigio sozialarekin lotzea zainduko da. - Atzerriko hizkuntzetan irakasteko (batez ere ingelesa) gai diren irakasle kopurua handitzea eta dagoeneko irakasten dutenen konpetentzia C1 mailara igotzea (2. HEren antzekoa). - Irakaskuntzan baliabide digitalen txertaketan aurrera egitea, baliabide gehiagorekin, abantailak aprobetxatuz, eta Sare_Hezkuntza Gelan sarea sustatzea. - Abian dauden programen eraginkortasuna aztertzea, horiek justifikatzen dituzten arazoen jatorria jorratzea, eta irtenbidea emateko erabilgarritasuna, baliozkotasuna eta eraginkortasuna lantzea. - Kanpo-ebaluazioez gain, hobekuntzara zuzendutako ikastetxeen barne-ebaluazioa bultzatzea, familiek, irakasleek eta ikasleek parte hartuko dutena			
	 Ikastetxe autonomoak, dinamikoak eta eraginkorrak.			
 Zuzendaritza egonkorra, trebea eta konprometitua ikastetxe guztietan.	- Ikastetxeek hezkuntza-komunitatearen beharren diagnostikoan dagokien erantzukizuna onartzea, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua egitea eta IUPen eta ebaluazio Memoriaren bidez urtero ebaluatzea etengabeko hobekuntza-prozesuan. Horretarako, behar dituen babesak eta baliabideak eduki beharko ditu, ahalik eta gehien optimizatuz. - Pixkanaka beharrezko baldintzak sortzea, ikastetxeen autonomia handiagoan aurrera egiteko: erabakiak hartzea eta kontuak ematea hezkuntza-komunitatearen eta administrazioaren aurrean. - Proiektu eleaniztunak definitu eta garatzea komunikazio-hizkuntzen entzumenean, irakurmenean, mintzamenean eta idazmenean konpetentziaren malla hobetze aldera irakasle guztien inplikazioarekin.			
	 Irakasle talde konpetenteak, egonkorak, berritzaileak.			

“Hezkuntza-lidergoarekin lotutako Euskadiko ikastetxe baten sorrerarantz pausoak ematea”.



4. IKASKUNTZAREN EMAITZAK

Kapitulu honetan jorratzen diren bi dimentsioak, emaitzen kalitatea eta ekitatea, hezkuntza-sistemaren egoera onen oinarritzakoak eta osagarriak dira. Alde batetik, eskolarizatutako herritar guztien emaitza akademikoak aztertuko dira, derrigorrezko mailetan eta derrigorrezko mailen ondokoetan, honako hauen bidez:

- Ikasleen ebaluazio akademikoak (Ikuskaritzaren Datuak)
- Ebaluazio diagnostikoak, 2017 (ISEIren txostenak)
- PISA, 2015 ebaluazioa (ELGE txostenak, INEE txostena, ISEI txostena)

A) a) Eskola-emaitzak


ESKOLA KALIFIKAZIOA, 2016-17



Heterogeneotasun handia dago ebaluazio-irizpideetan.

Ikastetxeetako kalifikazioak oso positiboak dira hezkuntza-etapa guztietan, eta gainditze-tasa % 90 ingurukoa edo altuagoa da. Lehen Hezkuntzako 6. mailan tasa hori % 98koa da.

Ikasleen bilakaera (%), DBHko mailak gainditu dituenak, 2011tik 2016ra




EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA, 2017




Ebaluazio diagnostikoak ezin estimatuzko ikuspegia eskaintzen du, alderaketari zein bilakaerari dagokienez. Garapen kognitiboko, zein garapen pertsonal eta sozialeko ezberdintasunak handitu diren, berre horretan mantendu diren edo murriztu diren aztertzeak aukera emango du.

ED, 2017ko emaitzek ED, 2015eko emaitzei eusten die, oszilazioen bat badago ere. 2011 urteaz geroztik nabarmen galdu da Euskararen, Matematiketan eta Ingelesean.

Lehen Hezkuntzako 4. maila. Bost gaitasunen emaitzen bilakaera, sei edizioetan zehar.





B) EKITATEA SISTEMAN

“Hezkuntza-sistema bidezkoa izateko, ikasleen jardun akademikoa beren gaitasun eta ahaleginen arabera izan behar da, eta ez beren gizarte, kultura edo ekonomiaren jatorriak ezarritako egoeren arabera”.

Txosten honetan aintzat hartutako ekitate-adierazleak laburtzen dituen taula

	Alderdia	Definizioa	Datua eta balorazioa	+	=	-	Iturria
1	Emaitzen aldakortasuna	95 pertzentilaren eta 5 pertzentilaren arteko emaitza-ezberdintasuna	Aldakortasun nahiko baxua (279 puntu)	x			PISA 2015 (ISEI-IVEI txostena)
2	Errendimendu baxuko ikasleak	1, 1a eta 1b mailetako ikasle %, PISAren 2. maila lortu ez dutenak	Maila altua. Ikasleen % 20. (UE 2020 helburua % 15)			x	PISA 2015 (ISEI-IVEI txostena)
3	Indize sozioekonomiko eta kulturalaren eragina batez besteko puntuazioetan	Indize sozioekonomiko eta kulturalak 0,1 haztean, puntuak zenbat egiten duten gora	Indize sozioekonomiko eta kulturalaren eragin-maila mugatua. 2,2 puntu hamarren bakoitzeko	x			PISA 2015 (ISEI-IVEI txostena)
4	Ekitatea heziketan aurrera egiteko	Eskola goiz uztearen tasak	Euskadik, % 7 du, Espainia eta EBko tasarik baxuenetakoa (2020 helburua= % 10)	x			Hezkuntza adierazle sistema, 2016. ISEI-IVEI
5	Ekitatea, hezkuntzan goiz hasteko aukera gisa	Eskolatze-tasa 0-2 urte	Adibidez, 2 urteko haurren eskolatzea % 93,4koa da Batez bestekoaren gainetik.	x			Unibertsitateaz kanpoko estatistikak, Espainian. MECyD
6	Ekitatea/ekitate eza mailak errepikatzean	Errepikatze-tasak eta egokitasun-tasak	Adierazleak positiboak dira	x			Unibertsitateaz kanpoko estatistikak, Espainian. MECyD



IRITZIAK

Emaita akademikoetan bakarrik oinarritzen den eskola-arrakasta mugatua da. Arrakastaren kontzeptua zentzu zabal eta globalagoan ulertzea behar da, hezkuntza eraldatu ahal izateko. Gaur egungo ikasleek garapen kognitibotik harago dauden ezagutza, gaitasun eta jarrerak ere behar dituzte. Asmoa ez da enfasi akademikoa murriztea, ikerkuntzak ikasketarako funtsezko irizten dituen baldintzak azpimarratzea baizik. Jakina denez, ikaslea eraginkorragoa izango da curriculum zorrotz eta motibatzailea probatzen badu. Jakina da ikasleak erantzun hobea ematen duela ikastetxean eta komunitatean integratua dagoenean, fisiko eta emozionalki ziur sentitzen denean, esku hartu eta bere ikaskuntza-prozesuen jabe egiten denean.

Ezberdintasunak desagertzea nahi denean, ezberdintasunak baino ez badira aztertzen, ikaslea etiketatu eta indize sozioekonomiko bat ezartzen zaio, bere errendimendu baxua azaldu ahal izateko; hala, hori “itxaropena baxuetan” eraldatzeko arriskua dago. Eta itxaropena baxua bada, gutxi jasoko da.


Hala ere, ezberdintasunak murrizteko zeharkako bide bat jorratzea eraginkorragoa izan daiteke. Ikaslearen heziketa-beharrizanak goiz antzematen badira, eta kalitate handiko irakaskuntzarekin egiten bazaie aurre-itxaropen altuak, estatus sozioekonomikoa edozein delarik ere ezberdintasun horiek beren kabuz desagertzen dira, eta ikasle guztiek dute garapen pertsonala, soziala eta akademikoa garatzeko aukera.

Agerikoa da neurri onak behar direla emaitzak hobetu eta ezberdintasunak murrizteko. Hala ere, bi zeregin horiek arrakastaz lortzeko, hezkuntza-sistemek emandako zerbitzuaren kalitatea hobetzeko eta pertsona guztiei ezagutza, jarrera eta gaitasunei dagokienez “oinarrizko errenta” eskaintzeko duten betebeharrak morala bete behar da.



4

Ikaskuntzaren emaitzak.



- * ESKOLA-EMAITZAK
- * EKITATEA SISTEMAN



**Hezkuntza-
ebaluazioetan
eskola-arrakastaren
ikuspegi zabala izatea.**



**Ikaskuntzaren
beste emaitzei
garrantzia ematea:
ikaslearen esku-hartzea,
motibazioa
eta parte-hartze aktiboa.**



**Ikastetxez
kanpoko ebaluazio-
prozesuak hobetzeko
aukeratzat hartzea, eta
ez mehatxutzat.**



**Ezberdintasunen
eta ezberdinak direnen
hezkuntza-sistema
integratzailea eta
inklusiboa.**



**Ikasle guztien
eskola-arrakasta
bermatzeko
apustua egiten duen
hezkuntza sistema.**

- Arrakastaren kontzeptua zentzu zabal eta globalagoan ulertzen sustatzen jarraitzea, hezkuntza eraldatu ahal izateko. Arrakastaren kontzeptua zentzu zabal eta globalagoan ulertzen sustatzen jarraitzea, hezkuntza eraldatu ahal izateko.
- Ingurumen-baldintzak sustatu behar dira, ikasleak intelektualki zorrotza izango den ingurune familiar eta sozial batean ikas dezan, segurtasun fisiko eta emozionala eman diezaion, bizimodu osasuntsua praktika dezan, ikaskuntzan aktiboki esku hartu eta ikastetxearekin eta komunitatearekin lotuta egon dadin.
- Ikastetxeen eta ikasleen osasun onaren adierazle indartsu eta egonkorra ezartzea, ikasleen osasun emozional ona eta ikaskuntzaren eraginkortasuna aurreikusteko.
- Irakasleak, gaitasun akademikoak ebaluatzeaz gain, gaitasun pertsonal eta sozialak ebaluatzeko prestatzea sustatu eta bultzatzea.
- Balio erantsi altuko emaitzak dituzten ikastetxeetako esperientziak eta jardunbide egokia hedatzea.
- Hezkuntza-komunitate osoan kanpoko ebaluazioen kultura positiboa sustatzea, benetan duten esanahiaren informazio zorrotza ematek hasita
- Zailtasunak dituzten ikastetxeei, publiko zein itunpekoei, estatus berezia ematea, eta baliabide gehigarriak ematea –zuzendaritza, irakasle, programa eta espezializatutako materialak, beharizan errealei erantzuteko.
- Ikastetxe publiko zein pribatuak kontzientziazatzea, partekatutako erantzukizuntzat har dezaten gizarte justu eta berdinzaleagoa lortzeko.
- Hizkuntza-ereduen egungo markoa berrikustea, eta beharrezko neurriak hartzea, eredu inoiz ez dadin izan diskriminazio edo bereizketarako faktorea.
- Mailak errepikatzea desagertzea edo horiek murriztea, berehalako eta pertsonalizatutako erantzunak ematea behar denean.
- Bigarren mailako ibilbideak eta estrategia selektiboak ekiditea, bereizitako curriculum-ibilbideen hautaketa-prozesuak ahalik eta gehien atzeratzea.
- Ikastetxearen hautaketa arautzea, kohesio sozialerantz aurrera egin eta ekitatea areagotzea.

"Ikasle guztien arrakasta, pertsonala, soziala eta akademikoa bermatzea".